

TALDE ERAGILEAREN BILERA: 2017an egindakoaren balorazioa

-2018ko urtarrilaren 23an-

Bertaratutakoak:

8 lagun: 6 emakumezkoak eta 2 gizonezkoak. Hasiera ordua 18:30etan; amaiera ordua 19:50etan. Aztiker Ikerguneko ordezkaria, Susana Martinez; Udaleko ordezkaria, Eztitxu Mujika.

1. SARRERA ETA KOKAPENA

Gogorarazi da azaroan eginiko proiektu finalisten harira izan zela azken herri ekintza kolektiboa. Horrela, gogorarazi da orduan emandako urratsak, urritik-abendua bitartekoak:

1. Herri erakusketa proiektu finalisten baitan, bi kategorien arabera:
 - a. Herritarrak orokorrean
 - b. Haurrak (eskolaren bidez)
2. Emaitza eta epai mahaiaren jarraipena.
3. Esleitutako arkitekto taldearekin lan bilera, eta herritarren balorazio eta moldaketa eskaeren jakinarazpena.

Honela, esan da bilera hau urtea amaitu aurretik egin nahi izan zela, baina datak gainera etorrita, ez zela tarte egokirik topatu proposatzeko.

2. EGINDAKO BIDEAREN ERREPASOA ETA BALORAZIOA

Gogorarazi da ere 2014tik hona egindako bidea, jarraian azaltzen den eskemaren arabera:

- Zaldibiaren Etorkizuna, 2014. Herri jardunaldiak, herri diagnosis eta herri plana zehazteko.
- 2015-2019 urteetan zehar udal gobernuak emandako urratsak:
 - Eraikin publikoen gaineko Ekintza Plana, 2016: 2014ean egindako herri hausnarketan oinarriturik, bertan antzemandako bost interbentzio guneetarako ekintza plan teknikoa.
- Zaldibia Eraberritzen, 2016-2017:
 - Ekintza planaren sozializazioa herritarrei
 - Ekintza planak azaltzen zituen interbentzio guneen gaineko lehentasunak zehazteko talde dinamikak.
 - Udal eraikina plaza proiektu batean integraturik lehentasuna.
 - Udal eraikinaren prozesu urbanistikoa herri partaidetzarekin.

EMAITZA: Proiektu zehatz bat, eta apirila bitarte horren proiektu urbanistikoa egingo du esleituriko arkitekto taldeak.

3. ETA 2018an, ZER?

Udal arduradunak azaldu du 2018an garatuko den eskema proiektu ezberdinen baitan, honela:

- Artxanberriko lokalaren obra: obra esleituta dago eta martxan hasiko da datozen egunetan. Obraren iraupena OTSAILA-APRILIA bitartekoa izango da (planoak azaldu dira eta egingo den obraren errebasoa egin da horren baitan). Maiatzean aurreikusten da lokalaren inaugurazioa. Berau modu irekian eta herritarrei irekita aurreikusten da, ospakizun moduan. Halere, jarduerak irailetik aurrera trasladutuko dira kultur-etxe zaharretik Artxanberrira, egokiago ikusten baita kurtsoa amaitzea. Irailean definituriko jarduera denak hasiko dira Artxanberrin. Zehazteko dago Udako haur jarduerak non garatuko diren.
- Udal eraikinerako proiektu lehiaketa amaituta, eta arktiektu taldea hasi da jada proiektu urbanistikoa idazteko lanetan. Horretarako, Udalak egin du bilera bat ekipoarekin, eta bertan trasladatu zaizkie proiektuari buruz herritarrek eginiko balorazioak eta iradokizunak (**ikus 1. Eranskina: Udaletxe berriaren proiektua idazteko ideia-lehiaketaren irabazleekin izandako lehen harremanaren kronika**).

Talde Eragileak-herritarrek oro har, zein egiteko du? Galdera honi erantzuna eman zaio honako puntuen errebasoa eginez:

- Talde eragilea lan talde bezala sortu zen esleitu arte proiektu bat. Bere bidea egin du, eta urte eta bi hilabeteko bidea egin du zeregin horretan.
- Lan fase bat amaitu dela baloratzen da (esleipena prozesuaren jarraipenaren gainbegiraketa). Horrekin batera, lan taldea beraren funtzioa ere amaitutzat ematen da.
- **PROIEKTU URBANISTIKOAREN emaitza, apirilaren inguruan** izango da. Ordurako aurreikusten da **deialdi irekia egitea herritar denei**, eta bereziki Talde eragilea osatu duzuen pertsoneri, **zuzeneko aurkezpena eta solasaldia izan dezagun guztiok arkitektoek aurkeztuko diguten behin betiko proiektuaren inguruan**. Beraz, hurrengo deialdia izango da UDABERRIAN, eta irekia izango da, nahiz talde eragileari bereziki intsistituko zaion bileran parte hartzeko.
- Kultur etxe zaharra botatzea: dirua gordeta eta zehatza dago kultur etxe zaharra botatzeko. Urte amaiera aldera izango da, eta eragingo da kale pasean gutxienez bi astez. Eskatzen da ongi abisatzea, eta ongi komunikatzea aurrez. Argitzen da ere zorua jada prest utziko dela Eraikin berriaren obrari begira.
- **FINANTZAZIO ILDOA**: apiriletik aurrera, eta behin proiektu urbanistikoa eskuetan dutela, Udala buru belarri ibiliko da finantzazioa bila. Aurrez esan bezala, bi bide jorratuko dira horretarako:
 - Diru-laguntza: Jaurlaritza, Aldundia, eta beste.
 - Banketxeekin maileguak

Horren berri ere jakinaraziko da urtea amaitu aurretik. Orduan erabakiko da zein modutan zabalduko den informazio hori (bilera, batzarra, edota bestelako komunikazio euskarriak...).

Besterik gabe, asko eskertuz herritarrek eskaini duten denbora proiektu honetan, bilera amaitutzat eman da.

Zaldibia, 2018ko urtarrilaren 23an.

4. ERANSKINA:

Udaletxe berriaren proiektua idazteko ideia-lehiaketaren irabazleekin izandako lehen harremanaren kronika (Udal arduradunen idatzia, 2017ko abendua amaierakoa):

Abenduak 19, asteartea, Laukituta proposamenaren egileekin elkartu ginen lehen aldiz. **Juan José Peralta Gracia** eta **Andres Ayesa Pascual** arkitekto iruindarrak dira Laukituta proposamenaren egileak eta beraiekin Iruñan bizi den aparejadore astigarragarra, **Asier**, ere etorri zen.

Bileraren hasieran, ideia-lehiaketaz, partaidetzaz, herriko testuinguruaz eta abar hitz egin genuen sarrera moduan.

Ondoren, Laukituta proposamenean sakonduz, proiektuaz eta Udalaren eta herritarren ekarpenez aritu ginen. Hasiera-hasieratik oso jarrera onarekin hartu zituzten eskatutako moldaketak eta erabat irekita agertu ziren, proiektua beraiek idatziko dutela, baina zaldibitar guztiona dela esanaz.

Honakoak izan ziren Udalaren aldetik eta erakusketa publikoan nahiz langileek egindako ekarpenak haintzat hartuz, **eskatu zitzaizkien moldaketak:**

- Behe solairuan: Udalaren sarrera behetik izan beharrean, goitik izatea (gaur egun Beti Gazteren sarrera dagoen posizioan) eta hortik behera plaza aldera Beti Gazte, terraza eta sarrera Joxepane aldera dituela. Beti Gazten sukaldea.
- Lehen solairua: ekitaldi-aretoa eta administrazioa alderantzikatzea, ekitaldiena plaza aldeko erdian eta administrazioa kale aldekoan ezarriz, eguzki orduak hobe aprobetxatzeko. Baita, idazkaritza eta kontu hartzailtza administrazioetik bereizita, baina aldi berean komunikatuta egotea ere.
- -Bigarren solairua: Gizarte zerbitzuen bulegoak elkarren artean gune bat osatzea, besteetatik bereizia.
- Hirugarren solairua: teilatu azpia da eta gelatxo bat egitea office moduan, langileek eguneroko otordua egiteko.
- Kanpoaldetik: leihoak handitzeko aukerak aztertzeke, baita beren garbitasun aukerak ere, eta fatxadako harria eta egurra lantzeko.
- Barruko altzarien proposamen bat lantzeko, eraikina barne eta kanpo koherentzia baten barruan egon dadin.
- Moldaketez gain, esan zaie oso ondo baloratu dela, bai behe pisuan Beti Gazte eta erabilera anitzeko gelak eta bai lehen pisuan pleno eta ekitaldi aretoak bat egiteko aukera ematea.

Aterpearen inguruan, web orrian txostenak irakurriak zituzten eta bazekiten ez dela herritarren gustukoa izan. Aipatu dugu aterpearen proiektua ondoren landu beharko dela, baina irekita agertu dira proposamen batzuk egiteko eta eskertu diegu borondatea. Aipatu diegu aterpeak ere balioanizta izateko aukera izan behar duela, egunerokorako, baina baita jende kopuru handiko uneetarako ere.

Bilerari amaiera emateko, proiektua idazteko prozedura eta epeez hitz egin dugu, baita ondoren finantzaketa lortzeko Udalak eman beharko dituen urratsez.

Arkitektoak berriro Iruñeara joan aurretik, herrian zehar itzuli bat egin dugu beraiekin hainbat azalpen eman eta parte hartze prozesuko beste proiektuak erakusteko.

Hurrengo urratsak:

Urtarrila, otsaila eta martxoan zehar eskatutako moldaketak lantzen arituko dira buru-belarri. Hartu-eman iraunkorra izango dute Udaleko arkitektoarekin eta Udaleko ordezkariekin edozein zalantza-edo dutenean.

Aste Santu ondoren, apirilean, behin moldaketak esku-artean direla, **sektorekako bilerak** egingo ditugu arkitektoak eurek ere bertan direla:

- Udal langileak
- Beti Gazte Elkarte
- Guraso Elkarte eta Jangelako langileak
- Partaidetzako Talde Eragilea eta herritar guztiak (aurkezpen ireki bat antolatuko da)

Bilera horietan jasoko diren azken egokitzapenekin, behin-betiko proiektua idatziko dute.

Paraleloki, Udalak finantzaketa lerroa landuko du. 2018 urte hasieran Europako Leader laguntza aterako da eta bertara aurkeztuko dugu Kultur Etxe Zaharra bota eta Udaletxe berria egiteko aurreproiektua. Bestetik, Foru Aldundiarekin ere bilduko gara eta baita banketxe ezberdinekin ere mailegu aukerak lantzeko.

Artxanberriko obra apiril-maiatzeko amaituta egongo da eta beraz, datorren kurtsoa bertan hasiko da irailean. Kultur Etxe zaharra bota eta Udaletxe berrirako zorua zimentatzea izango ditugarik datorren urteko erronkatzat.

Besterik gabe, azken egunotan egindakoaren berri izan zenezaten nahi nuen. Abenduan ez da posible izan, baina espero dut urtarrilaren lehen hamabostaldian Talde Eragilea bildu eta aurtengo lana baloratzeaz batera, datorren urtekoari begira jartzeko moduan izatea.

Eskerrik asko orain artean egindako lanagatik, ondo ondo bukatu urtea, hobeto hasi eta bueltan ikusiko dugu berriz elkar!

P.D. Komunikatzaile exkax xamarrak gara eta ez genuen argazkirik atera arkitektoekin, baina atxikita bidaltzen dizuet interneten bilatu dudak argazki bat ;) Hala ere, ezagutuko ditugu aurrerago seguru! Beraiek egin dituzten hainbat lan ere ikusgai dituzte <https://www.peraltaayesa.com/webgunean>.

Eztitxu Mujika Mariezkurrena
Zaldibiako Udaleko Partaidetza zinegotzia